

Bilbao Donostia-San Sebastián Vitoria-Gasteiz Pamplona-Iruña — Apirilak 4 abril — 20:00 h. Concierto nº 2463 kontzertua



EUSKADIKO
ORKESTRA

2010-2011

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa
Orquesta Sinfónica de Euskadi



EUSKADIKO
ORKESTRA

Gaurko kontzertua

El concierto de hoy

TAUPADA PARTEKATUAK. Oinarri folklorikoaren taupada su-tsuak nabarmenak dira Dvoráken *Seigarrenaren* pentagrama kolo-retsu eta indartsuetan. Wieniawski-ren 2. kontzertuko birtuosismo instrumental neurrigabeak, Sarasateri eskainiak, ez du lortzen *alla zingara* amaierako pasarte kartsuko oihartzun herrikoiak estaltzea. Oihartzun horiek Lutoslawski-raino iristen dira; izan ere, bere *Suite txikia* obran Krakoviako eskualdeko folklore poloniarra liluratuta jardun du.

PÁLPITOS COMPARTIDOS. El sustrato folclórico palpita con fuerza en los coloreados y vigorosos pentagramas de la *Sexta* de Dvorák, primera sinfonía publicada por el maestro checo y síntesis de su llamado “período eslavo”. El desenfrenado virtuosismo instrumental del Concierto nº 2 de Wieniawski, dedicado a Sarasate, no logra sofocar los ecos populares presentes en su fogoso episodio conclusivo *alla zingara*. Resonancias que llegan hasta Lutoslawski, quien, en su *Pequeña Suite*, se deja seducir por el folclore polaco de la región de Cracovia.

Hemen jarrai ahal izango
diguzu / Síguenos en:

[facebook](#) [flickr](#) [YouTube](#)

Y suscríbete al Euskor digital en

www.euskadikoorkestra.es

webgunean izena eman
Euskor digitalean

Testuak / Textos:
Juan Manuel Viana

Egitaraua / Programa

Witold Lutoslawski (1913-1994)

Pequeña suite (*Mala suite*) [11']

- I. Fujarka
- II. Hurra polka
- III. Piosenka
- IV. Taniec

Henryk Wieniawski (1835-1880)

Concierto para violín y orquesta nº2 en re menor, opus 22 [20']*

- I. Allegro moderato
- II. Romance
- III. Allegro con fuoco – Allegro moderato (à la zingara)

2

Antonín Dvořák (1841-1904)

Sinfonía nº6 en re mayor, opus 60 [41']

- I. Allegro non tanto
- II. Adagio
- III. Furiant-presto
- IV. Final-allegro con spirito

*Lehen aldiz interpretaturiko obra / Obra interpretada por primera vez

Waldemar Machmar
kontzertinoa / concertino

Michał Nesterowicz

zuzendaria / director

Cadaqués-ko Orkestraren IX. Nazioarteko Zuzendaritz Txapelketako irabazlea
Ganador de la IX edición del Concurso Internacional de Dirección de la Orquesta de Cadaqués

Luis Esnaola
biolina / violín

Euskadiko Orkestra
Orquesta de Euskadi

Lankide
Colabora:

EL CORREO

Egitarauari Oharak

Notas al Programa

Pequeña suite (*Mala suite*)

Witold Lutoslawski - Varsovia, 25 de enero de 1913 – 7 de febrero de 1994

Witold Lutoslawski joan den mendeko Poloniako musikako figura erabakigarria da eta, aldi berean, “Polonia gaztea musikan” taldeko kideen zein hurrekoen eta, 1950eko hamarkadatik aurrera, Krzysztof Penderecki (1933an jaioa) arrakastaz gidatu zuen belaunaldiaren arteko kate-begi erabakigarriena. Aipatu lehendabiziko taldean ibili ziren Mieczysław Karłowicz (1876-1909), Eugeniusz Morawski (1876-1948), Grzegorz Fitelberg (1879-1953), Karol Szymanowski (1882-1937) eta Ludomir Rózycki (1883-1853).

Suite txikia poloniar musikariaren lehendabiziko sormen-etapari dagokio, ia bere historiaurreari esan dezakegu, gerran eta justu ondorengoa urteetan landutakoa. Ordu hartan, Lutosławskik piano-bikotea eratu zuen Varsovia jaioterriaren bere lagun eta musikagile ere Andrzej Panufnik (1914-1991). Garai hartakoak dira bere lehenengo orkestra-partitura: *Aldaera sinfonikoak* (1936-1938), *1. Sinfonia* (1941-1947, garrantzizko bere lehen lana) eta harietarako *Obertura laburra* (1949). *Suite txikia* ganberako orkestrarako konposatu zuen 1950ean Varsovia Irratiaren mandatuz, eta urtebete geroago berrikusi eta emendatu zuen. Lanak lau mugimendu labur ditu Rzeszow eskualdeko Machów (Krakoviaz ekialdeko) hiriko doinu folklorikoetan oinarrituta. Nola *Fujarkan* (*Allegretto oharraz*) hala *Hurra Polkan* (*Vivace*), lehendabiziko bi atalek kemen eta erritmo-zorroztasun berezia dituzte. Oboeak eman eta gero errepikatutako doinu motel batek *Piosenka* hirugarren mugimenduaren (*Andante molto sostenuto*) artzain-giroa gehitzen du. Sosegu-giro horrek, beriz, *Tanice* azken dantza-

La obra de Witold Lutoslawski, figura crucial de la música polaca del pasado siglo, constituye el más decisivo nexo de unión entre los miembros y allegados del grupo “Joven Polonia en música”, donde se incluyen los nombres de Mieczysław Karłowicz (1876-1909), Eugeniusz Morawski (1876-1948), Grzegorz Fitelberg (1879-1953), Karol Szymanowski (1882-1937) y Ludomir Rózycki (1883-1853), y la generación que, a partir de la década de 1950, liderará con éxito Krzysztof Penderecki (n. 1933).

La Pequeña Suite pertenece a la primera etapa creadora del músico polaco; casi podría decirse a su prehistoria musical, la desarrollada en los años de guerra e inmediatamente posteriores, cuando Lutoslawski forma en su Varsovia natal dúo pianístico con su amigo el también compositor Andrzej Panufnik (1914-1991). Época a la que pertenecen sus primeras partituras orquestales: las *Variaciones sinfónicas* (1936-1938), la *Sinfonia nº 1* (1941-1947), su primera obra de envergadura, y la breve *Obertura para cuerdas* (1949). Compuesta para orquesta de cámara por encargo de la Radio de Varsovia en 1950 y revisada y ampliada para orquesta sinfónica un año más tarde, la Pequeña Suite se distribuye en cuatro breves movimientos basados en melodías folclóricas de la ciudad de Machów, en la región de Rzeszów, al este de Cracovia. Tanto *Fujarka* (marcada *Allegretto*) como *Hurra Polka* (*Vivace*), las dos primeras secciones, destacan por su energía e incisividad rítmicas. Una lánguida melodía expuesta por el oboe y luego repetida traduce la atmósfera pastoril de la tercera, *Piosenka* (*Andante molto sostenuto*), cuyo tono reposado contrasta de nuevo con la danza final, *Tanice*, un *Allegro molto* tripar-



rekin talka egiten du (urreko mugimenduak baino zertxobait garatuagoa den hiru zatiko *Allegro molto* bat). Bada, bere bi muturretan, Lutosławski *lasowiak* (tokiko dantza) bat birsortzen du era estilizatuan. Behin betiko eta dibulgatuen dagoen bertsioaz, *Suite txikien* estreinaldia Grzegorz Fitelbergen eta Varsovia Irratiaren Orkestra Sinfonikoaren eskutik joan zen, 1951ko apirilaren 20an Katowicen.

tito algo más desarrollado que los movimientos anteriores y en cuyos extremos Lutosławski recrea de forma estilizada una *lasowiak* o danza local. En su versión definitiva y más divulgada, el estreno de la Pequeña Suite corrió a cargo de Grzegorz Fitelberg y la Orquesta Sinfónica de la Radio de Varsovia, el 20 de abril de 1951 en Katowice.

Concierto para violín y orquesta nº2 en re menor, opus 22

Henryk Wieniawski - Lublin, 10 de julio de 1835 – Moscú, 31 de marzo de 1880

«Bere interpretatzeko era hezkuntza frantzes eta eslaviar aiurriaren arteko konbinazio bat zen». Horrela definitu zuten Joseph Joachim garaikide eta, bera bezala, garai hartako biolin-jole handienetako bat izandako Henryk Wieniawski poloniarraren artea (1831-1907). Oso gaztetatik musikarako dohainak zituela, Wieniawski Pariseko Kontserbatorioa sartzeko lehiaketara aurkeztu zen 1843ko udazkenean, eta Clavelen klasean onartu zuten eta, hurrengo urtean, berriz, Lambert Massardenean. Bere lehen kontzertzto publikoa Salle Érardin eman zuen 1844ko apirilaren 27an. Lambert Massardekin bi urtez prestatu eta bere lehendabiziko biolin saria 1846an eskuratu ondoren, Wieniawskik harmonia ikasi zuen Coletekin.

Mende erdialdera, musikari gazteak bakarlari-ibilbide arrakastatsuari ekin zion. Duoa osatu zuen anaia Józefekin (sona handiko piano-jolea), eta emanaldi ugarietan jardun zuten Errussian barrena (Mosku, Tula, Kursk, Penza, Voronezh, Odessa, Poltava...); aldi berean, bere katalogoko lehendabiziko lanak agertu ziren, hala nola, *Moskuko oroigarria*, op. 6 (1853); *Le carnaval russe*, op. 11 (1854) eta 1953ko

“Su manera de interpretar estaba formada por una combinación de enseñanza francesa y de temperamento eslavo”. Así fue definido el arte del polaco Henryk Wieniawski, contemporáneo de Joseph Joachim (1831-1907) y, como éste, uno de los más grandes violinistas de su tiempo. Precocemente dotado para la música, Wieniawski se presentaba en el otoño de 1843 al concurso de ingreso en el Conservatorio de París siendo admitido en la clase de Clavel y, al año siguiente, en la de Lambert Massard, ofreciendo su primer concierto público en la Salle Érard el 27 de abril de 1844. Tras formarse dos años con Lambert Massard y obtener su Primer Premio de violín en 1846, Wieniawski estudia armonía con Colet.

Mediado el siglo, la carrera de solista del joven músico comienza su triunfal andadura. Forma dúo con su hermano Józef, reputado pianista, con el que multiplica sus actuaciones en Rusia (Moscú, Tula, Kursk, Penza, Voronezh, Odessa, Poltava...) al tiempo que nacen las primeras obras de su catálogo, entre ellas *Souvenir de Moscou*, op. 6 (1853), *Le carnaval russe*, op. 11 (1854) y el ambicioso *Concierto para violín nº 1*, op. 14 de 1853. La reputación del violinista-compositor se extiende enseguida por toda

1. *Violinrako kontzertua*, op. 14. Violin-jole musikagilearen ospea berehala hedatu zen Europa osotik, eta Weniawskiren musika jotseko artea Leipzigen, Londresen eta Parisen entzun ahal izan zen, Anton Rubinsteinekin joaz. 1862tik 1868ra, irakasle jardun zuen San Petersburgoko Kontserbatorio sortu berrian eta, aldi berean, lehen violin postua bete zuen Errusiako Musika Elkartearen Orkestran eta Laukotean. 1875etik 1877ra, Vieuxtempsi haritu zion errelebua Bruselako Kontserbatorioan, eta Weniawskik bere violinaren birtuososibilbidean jarraitu zuen osasuna pattaltzen hasi arren (1878an, biziki akitua zela eta, bere 2. *Kontzertuaren* joaldia eten behar izan zuen Berlinen). Estatu Batuak bisitatu ondoren, 1878an Errusiara itzuli zen eta, bira batean zebilela, Moskun hil zen 1880an Nadejda von Meck Tchaikovskyren babeslearen etxearen.

Weniawskiren sorkuntza-ondare osoak –24 lan zerrendatuta, gehienean violin eta pianorako, eta zenbatu gabeko beste hainbat– bera mito bihurtu zuen instrumentua du protagonista. Musikari poloniarrak luzaro jardun zuen 2. *Violinrako kontzertuan* lanean. Lehen zirriborroak 1856koak dira, baina partitura 1862 amaieran burutu zuen. Ernaldi hain hausnartuak berresten duenez, bere eskritura nabarmen umotu zen 1853ko Op. 14koaren aldean. Ondorioz, egitura sendoagoa da, orkestrazioa anitz eta irudimentsuagoa (akonpainamendu hutsa izatetik urrutii), eta bakarlariak aurrean dituen zaitasun teknikoak ez dira lehen bezain hutsalak, konposizioaren diskurso orokorrean hobe integratzen baitira.

Birtuosismoa eta lirismoa trebetasunez jokatzen dira hasierako sonata formako *Allegro moderatoan*; gainera, atzetik dituen mugimendu guztien batura bezain luzea da. Aurreko mugimenduari klarinetearren arabesco malen-koniatsuek estekatuta dagoen bigarrenean (*Romance. Andante non troppo*), Weniawskik bizitasun eta emozio osoz jartzen du biolina kantuan, eta bakarlariari uzten dizkio akrobazia bihurrienak amaierako *Allegro con fuoco*-*Allegro moderato* (*à la Zingara*) paregabean. Sarasateri eskainita, 2. *Kontzertua* San Petersburgoen estreinatu zuten arrakasta handiz 1862ko azaroaren 27an, Anton Rubinsteinen zuzendaritzapean.

Europa y el arte interpretativo de Weniawski puede escucharse en Leipzig, Londres y París, donde toca con Anton Rubinstein. Entre 1862 y 1868 ejerce como profesor en el recién fundado Conservatorio de San Petersburgo, a la vez que ocupa el puesto de primer violín en la Orquesta y el Cuarteto de la Sociedad Musical Rusa. Sucesor de Vieuxtemps en el Conservatorio de Bruselas entre 1875 y 1877, Weniawski prosigue su carrera de virtuoso del violín a pesar de que su salud comienza a declinar (en 1878, un exceso de fatiga le obligó a interrumpir una interpretación de su *Concierto nº 2* en Berlín). Tras visitar Estados Unidos, regresa en 1878 a Rusia; en Moscú, durante el transcurso de una gira, morirá en 1880 en la residencia de Nadejda von Meck, la protectora de Tchaikovsky.

Todo el legado creador de Weniawski –24 obras numeradas, en su gran mayoría para violín y piano, y otras tantas sin numerar– tiene como protagonista al instrumento que lo mitificó. El músico polaco trabajó en el *Concierto para violín nº 2* durante mucho tiempo. Los primeros esbozos se remontan a 1856 aunque la partitura no quedó concluida hasta finales de 1862. Tan meditada gestación confirma que su escritura había madurado sensiblemente respecto a la que, en 1853, fuera responsable del Op. 14. Así, la estructura ofrece una mayor solidez, la orquestación es más variada e imaginativa, alejada ya de un simple acompañamiento, y las esperables dificultades técnicas que debe afrontar el solista resultan menos gratuitas que antaño, mejor integradas en el discurso general de la composición.

Virtuosismo y lirismo se conjugan con habilidad en el *Allegro moderato* inicial, en forma sonata y de curso tan amplio como la suma de los movimientos que le siguen. En el segundo movimiento (*Romance. Andante non troppo*), encadenado al anterior por los melancólicos arabescos del clarinete, Weniawski hace cantar al violín con intensidad y emoción genuinas reservando al solista las más espinosas acrobacias en el brillantísimo *Allegro con fuoco*-*Allegro moderato* (*à la Zingara*) final. Dedicado a Sarasate, el *Concierto nº 2* fue estrenado con gran éxito en San Petersburgo, el 27 de noviembre de 1862, bajo la batuta de Anton Rubinstein.

2.

Sinfonía nº6 en re mayor, opus 60

Antonin Dvorák - Nelahozeves, 8 de septiembre de 1841 – Praga, 1 de mayo de 1904

1865ean, Dvorák gazteak sinfonia-ziklo bati ekin zion, eta urte horretan bertan amaitu zituen lehenengo biak. 1873tik 1875era, hiru lan gehitu zituen falta gabe urtero. Aldiz, 5 urte pasa behar izan ziren 1880ko udan musikari txekiarra egun 6. *Sinfonia* deitutakoa ontzeari ekin zion arte, Simrockek argitaratu guztietan lehendabizikoa, 1881ean. Horrenbestez, denbora luzez, *Lehenengo sinfonía* ere deitu zioten. Argitu beharra dago argitaratzaile horrek *Bigarrena*, op. 70 izenaz kaleratu zuela egun *Zazpigarrena* dena, eta 1888 arte atzeratu zuen (3.a eta Op. 76 deituraz) egun *Bosgarrena* deitzen duguna.

Agerikoa denez, *Seigarrena* erabakigarria izan zen Dvoráken ibilbidean. Bere lehen-dabiziko sinfonía guztiz heldua da. Bertran, musikari bohemiarra maisuengandik ikasitako egite-bitarteko guztiak agertzen bide ditu: Beethovenen tankerako egitura-irmitasuna, Schuberti ikasitako esponentaneotasuna, Brahmsen kolorea, azentu epikoak eta sorlekuko airea, Smetana bere aberkidean agertu bezala. Braider-en iritziz, *Mendi zuria oinordekoak* (1872) ereserki sinfoniko-koralak, gaia eta hizkuntza hor zeuden arren, ez zuen artean txekiar musika-espíritua; aldiz, Burghauser-ek eslaviar gaiet musikagilea musika-forma erabat berrietara gidatu zuten aldean kokatzen du *Seigarrena* (soilik zortzi urte geroagokoa): *Duo moraviarrak*, *Rapsodia eslaviarrak* eta, batez ere, ezusteko abegi ona izan zuten *Dantza eslaviarrak*.

Egileak 1880 abuztuaren 27tik urriaren 15era jardun zuen 6. *Sinfonian*. Dvorákek lagun eta babesle zuen Brahms, begirune handia zion, eta hori agerian geratzen da lan honetan, Vienan 1877 amaieran estre-

En 1865 el joven Dvorák iniciaba su ciclo de sinfonías concluyendo las dos primeras a lo largo de ese año. Entre 1873 y 1875, y a un ritmo anual constante, añadía tres obras más a su cómputo. Habrían de pasar, sin embargo, cinco años hasta que, en el verano de 1880, el músico checo emprendiera la composición de la que hoy conocemos como su *Sinfonía nº 6*, la primera de todas ellas que le publicara Simrock, en 1881. De ahí que durante mucho tiempo fuera conocida como *Primera Sinfonía* (aclaremos que dicho editor publicaría en 1885 como *Segunda*, op. 70 la que hoy es *Séptima* y demoraría hasta 1888 la edición, con el nº 3 y el Op. 76, de la actual *Quinta*).

Es evidente que la *Sexta* asume un papel determinante en la carrera de Dvorák. Se trata de su primera sinfonía plenamente madura, en la que el músico bohemio parece ya en posesión de todos los resortes constructivos aprendidos de sus maestros: la solidez estructural beethoveniana, la espontaneidad aprendida de Schubert, el colorido brahmsiano, los acentos épicos y el aroma del terruño presentes en su compatriota Smetana. Si para Braider el himno sinfónico-coral *Los herederos de la montaña blanca* (1872) carecía aún, pese a su temática y su lengua, del verdadero espíritu musical checo, Burghauser enmarca a la *Sexta*, fechada sólo ocho años después, en ese período en el que la temática eslava orienta al compositor hacia formas musicales totalmente nuevas: *Dúos moravos*, *Rapsodias eslavas* y, sobre todo, esas *Danzas eslavas* que le otorgarían una popularidad inusitada.

La *Sinfonía nº 6* ocupó a su autor entre el 27 de agosto y el 15 de octubre de 1880. El

natutako hanburgotarraren *Bigarren sinfonikak* Dvoráken baitan izan zuen eraginarekin batera (erritmo-eskema eta ideia tematiko berdinak, tonalitate berdina), bereziki muturreko mugimenduetan, horiek lotzen baitzaizkio zintzoen Brahmsen eskriturari. Sonata formaz, hasierako *Allegro non tanto* zabala tonu panteista eta bare batean irekitzen da, zuren eta harien interbentzioek zizelkatuta; berehala, ordea, kolore biziagoen giro suharragoari zabaltzen zaio bidea. Ametsezko gau-giro bare batek biltzen bide du *Adagioaren* isuria, hasieran Beethovenen *Bederatzigarrenaren* mugimendu mantsoaren zantzuk dituela. Lehendabiziko aldiz, Dvorákek *furiantaren* erritmo-joritasunera jotzen du (Bohemiano kemen itzeleko baserritar dantza bat da) scherzo sinfoniko baterako. Emaitza miresgarria da: pasarte horri darion pozak eta suharrak, eslaviar koloraketaren benetakotasunak eta abiadura zorabiagarriak egilearen katalogoa hain emankorrak diren une magikoetako bat bihurtzen dute. Berriz sonata formaz eta berriz ere Brahmsen aztarnak dituela, *Finale-Allegro con spiritoak* aurreko mugimenduaren dantatzeko moduko giro pozgarria eta freskotasun atsegina eta bizitasun espontaneoa uzten dute agerian.

Seigarren sinfonia Pragan estreinatu zuten 1881eko martxoaren 25ean, orkestra hiriko antzokietako musikariek osatuta zegoela eta orkestra-buru Adolf Čech zuela (ikasle-garaietatik Dvoráken laguna). Bada, Filharmonia fundazioaren kontzertu hori halako popez hartzuten, non *furiantaren* bisa ere egin behar izan zuten. Lana Hans Richter orkestra-zuzendari hungariarrari eskanitza dagoen arren (3. *rapsodia eslaviarra*z 1879ko azaroan Vienan lortutako arrakastaren ondoren, Richter-ek beste sinfonía bat komposatzeko eskuatu zion Dvoráki), berak ez zuen 1882ko maiatzaren 15 arte jo Londresen, Auguste Mannsek Inglaterrako hiriburuan aurkeztu eta hilabete geroago.

respeto que Dvorák sentía por Brahms, amigo y protector, junto con la influencia que sobre el primero ejerció la *Segunda Sinfonía* del hambugués, estrenada en Viena a finales de 1877 (semejantes esquemas rítmicos e ideas temáticas, misma tonalidad), queda patente en esta obra, especialmente en sus movimientos extremos, los más afines a la escritura brahmiana. En forma sonata, el amplio *Allegro non tanto* inicial se abre en un tono panteísta y sereno, cincelado por las intervenciones de maderas y cuerdas, que enseguida abre paso a una atmósfera vehemente de colores más vivos. Un ambiente de serena ensوación nocturna parece envolver el poético discurrir del *Adagio*, reminiscente en su inicio del movimiento lento de la *Novena* de Beethoven. Por primera vez, Dvorák acude a la exuberancia rítmica del *furiant* –danza campesina bohemia de formidable energía– para un scherzo sinfónico. El resultado es deslumbrante: la alegría y fogosidad que desprende esta página, lo genuino de su coloración eslava y su impulso irrefrenable la convierten en uno de esos instantes mágicos tan pródigos en el catálogo de su autor. De nuevo en forma sonata y otra vez con ecos brahmsianos, el *Finale-Allegro con spirito* corrobora el jubiloso clima danzable, la exultante frescura y espontánea vitalidad del movimiento anterior.

El estreno de la *Sexta Sinfonía* tuvo lugar en Praga, el 25 de marzo de 1881, con Adolf Čech –amigo de Dvorák desde los tiempos estudiantiles– al frente de una orquesta integrada por músicos de los teatros de la ciudad, en un concierto de la fundación Filharmonia acogido con tal entusiasmo que hubo de bisarse el *furiant*. Aunque la obra está dedicada al director de orquesta húngaro Hans Richter –que tras el éxito alcanzado en Viena, en noviembre de 1879, con la *Rapsodia eslava nº 3*, solicitó a Dvorák la composición de una nueva sinfonía–, éste no la interpretaría hasta el 15 de mayo de 1882 en Londres, un mes después de que Auguste Manns la presentase en la capital inglesa.

Musika argudio La música como pretexto

“ Lutoslawskiren orkestrak, Szymanowskiren oinordeko, dardara arraroen eta soinu gardenen arteko aliantza ezagunaren traza du.

La orquesta de Lutoslawski se dibuja, heredada de Szymanowski, con la alianza característica de vibraciones extrañas y sonidos cristalinos.”

C. Delamarche

“ Wieniawskiren aiurri suharrak harrigarri eragiten zien entzuleei. Garai hartako komentariogile guztiak aho batez aipatzen dute bere joaldien efektu sorgintzailea.

El temperamento apasionado de Wieniawski tenía un asombroso efecto en sus oyentes. Todos los comentaristas de la época hablan unánimemente sobre el efecto demoníaco de su interpretación.”

J. Reiss

“ Re maiorreko 6. Sinfoniak *Ijito-abestiek* hain ondo adierazi zuten “eslaviar” delako aldi honen gaina jotzen du.

La *Sinfonía nº 6 en re mayor* constituye el punto culminante de ese período llamado “eslavo” que las *Canciones gitanas* expresaron tan bien.”

G. Erismann

Gure iradokizun diskografikoa Nuestra sugerencia discográfica

W. Lutoslawski: Pequeña suite

Orquesta Sinfónica de la Radio Nacional Polaca.
Zuzendaria/Director:
Antoni Wit.
Naxos, 1996.

H. Wieniawski: Concierto para violín nº 2

Gil Shaham, violín.
Orquesta Sinfónica de Londres.
Zuzendaria/Director:
Lawrence Foster.
DG, 1990.

A. Dvorák: Sinfonía nº 6

Orquesta Filarmónica Checa.
Zuzendaria/Director:
Karel Ančerl.
Supraphon, 1966.

Michał Neste- rowicz

zuzendaria
director



Michał Nesterowicz egungo poloniar zuzendari interesgarrienetako bat dugu. Breslaviako Musika Akademian ikasi zuen. 2004ean Gdańsk-eko Baltikoko Orkestra Filarmonikoaren zuzendari artístico izendatu zuten eta Polonian orkestra bat zuzentzen duen zuzendari gazteena bilakatu zen. Denbora gutxira Txileko Orkestra Sinfonikoko zuzendari printzipal izendatu zuten, egun ere betetzen duen kargua izanik. 1999. urtean VI. Grzegorz Fitelberg Nazioarteko Zuzendari Lehiaketan esku hartu zuen eta Poloniar Irrati Nazionalak emandako poloniar zuzendari onenari saria merezi izan zuen. 2006an Txileko Santiagon "urteko zuzendari" izendatu zuten eta 2008an Cadaqués-eko Nazioarteko Zuzendari Lehiaketan lehenbiziko saria irabazi zuen. Poloniar orkestra nagusienekin egin du lan: Varsoviako Orkestra Filarmonikoa, Sinfonia Varsovia, Katowiceko Orkestra Sinfoniko Nazionala, Krakoviako Beethoven Academy Orchestra eta Sinfonietta Cracovia.

Michał Nesterowicz es uno de los directores polacos más interesantes de la actualidad. Estudió en la Academia de Música de Breslavia. En 2004 fue nombrado director artístico de la Filarmónica Báltica de Gdańsk, convirtiéndose en el director más joven de una orquesta en Polonia. Poco después fue nombrado director principal de la Orquesta Sinfónica de Chile, cargo que hoy ostenta. En 1999 estuvo entre los ganadores de la VI edición del Concurso Internacional de Dirección Grzegorz Fitelberg, obteniendo el premio especial al mejor director polaco otorgado por la Orquesta de la Radio Nacional Polaca. En 2006 fue proclamado "director del año" en Santiago de Chile y en 2008 obtuvo el primer premio del Concurso Internacional de Dirección de Cadaqués. Ha trabajado con las mejores orquestas polacas: Filarmónica de Varsovia, Sinfonia Varsovia, Sinfónica Nacional Polaca de Katowice, Beethoven Academy Orchestra de Cracovia y Sinfonietta Cracovia.

www.nesterowicz.pl

Luis Esnaola

biolina
violín



Debuta hamar urterekin egin zuen Estatu Batuetan, Cincinnatiko Orkestra Sinfonikoarekin. Hamalau urterekin V. Pablo Sarasate Lehiaketan hirugarren saria eta publikoaren saria berezia merezi izan zituen, lehiaketa honen historian sarituenen artean gazteena izanik. Jugend Musiziert lehiaketan, berriz, lehenbiziko saria irabazi zuen, bakarlarri eta ganbera-musika mailatan. Sound Symphony Orchestra saria irabazi zuen New Yorken eta baita Imbusch Stiftung (Schleswig-Holstein) eta Deutsche Stiftung Musikleben (Hamburg) fundazioen sariak ere. Carl Flesch, Larzac, Ravinia eta Sarasota-ko jaialdietan aritu da. Itzhak Perlman Music Program delakoaren kide izana da. Pinchas Zukerman-en ikasle izan zen eta gradu-ondoko ikasketak Boston-go New England Conservatory-n burutu zituen. Egun Antje Weithaas-en ikasle da Berlingo Hanns Eisler eskolan. Berlingo Orkestra Filarmonikoaren Orchesterakademie delakoan sartu ostean, sarritan aritzen da orkestra honen kontzertuetan.

Debutó a los diez años en Estados Unidos con la Sinfónica de Cincinnati. A los catorce recibió el tercer premio del V Concurso Pablo Sarasate así como el premio especial del público, siendo el laureado más joven en la historia del concurso. También obtuvo el primer premio del concurso Jugend Musiziert, en las modalidades de solista y música de cámara. Fue ganador del primer premio Sound Symphony Orchestra (Nueva York) y de las Fundaciones Imbusch Stiftung (Schleswig-Holstein) y Deutsche Stiftung Musikleben (Hamburgo). Ha participado en los festivales de música Carl Flesch, Larzac, Ravinia y Sarasota. Ha sido miembro del Itzhak Perlman Music Program. Estudió con Pinchas Zukerman y cursó postgrado en el New England Conservatory de Boston. Actualmente continúa su formación con Antje Weithaas en la escuela Hanns Eisler de Berlín. Tras su incorporación a la Orchesterakademie de la Filarmónica de Berlín participa regularmente en sus conciertos.

Gure Orkestraren jarduerari buruzko xehetasun gehiago nahi izanez gero gurekin harremanetan jar zaitezke / Si desea conocer más detalles acerca de la programación de nuestra Orquesta contacte con nosotros.



943 01 32 32 | www.euskadikoorkestra.es

Miramon Pasealekua, 124 • 20014 Donostia-San Sebastián

Hurrengo abonu kontzertua Próximo concierto de abono

Maiatzak

12

Mayo

V. de Zubiaurre

Ecos de Oiz

R. Schumann

Concierto para violoncello
y orquesta

L.V. Beethoven

Sinfonía nº4

Jean-Christoph Spinosi

Zuzendaria / Director

Johannes Moser

Biolontxeloa / Violoncello

Musika Familiar Conciertos en Familia

Maiatzak

13

Mayo

Teatro Principal Antzokia
19:00 horas

Barrokoa, historiari begirada bat

Barroco, una mirada para la historia

**Sarreren
salmenta**

**Venta de
entradas**

Teatro PRINCIPAL Antzokia

Taquilla / leihatila. Tel.: 945 16 10 45

Asteartetik larunbatera, 18:30etatik
20:30etara (jaieguneetan izan ezik) eta, funtzió
egunetan, hau hasi baino hiru ordu lehenago.

De martes a sábado, de 18:30h a 20:30h
(excepto festivos) y los días de función tres
horas antes de la hora de inicio.

SerVital Postontzi automatizatuak
Buzones automatizados SerVital

www.cajavital.es

www.euskadikoorkestra.es



Euskadiko Orkestra Sinfonikoa Orquesta Sinfonica de Euskadi



EUSKADIKO
ORKESTRA